

Topalekua

73 zk. 2012ko martxoa

marzo 2012 - n.º 73

orr. 1: *Gizarte-kontseiluaren osoko bilkurak aldeko txostena eman dio Masterreko eta Doktoregoko Ikasketen unibertsitate-eskola eratzeaz*

orr. 2 eta 3: *EAE-ko zientzia eta teknologia Plana: 9.000 Milioi inbertituko dira i+g arloan datozen lau urteetan*

orr. 4: *Krisia egon arren, enplegu kualifikatua igo egin da EAE-n*

GIZARTE-KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK ALDEKO TXOSTENA EMAN DIO MASTERREKO ETA DOKTOREGOKO IKASKETEN UNIBERTSITATE-ESKOLA ERATZEAR

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak Masterreko eta Doktoregoko Unibertsitate Eskola Nagusia eratzeari aldeko txostena ematea erabaki zuen otsailaren 7an, Bilbon egin zuen bileran. Unibertsitate Eskola hori masterreko eta doktoregoko titulu ofizial guztiak antolatzeaz, koordinatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko da, atribuzio profesionalak ematen dituzten tituluak izan ezik; azken horiek dagozkien ikastegietan kudeatuko dituzte.

Masterreko eta Doktoregoko Eskola eratzeari jada aldeko txostena emana zioten Doktoregorako Azpibatzordeak eta Akademia Antolakuntza eta Doktoregorako Batzordeak. Horrekin batera, Gobernu Kontseiluak ere onartu zuen abenduaren 22an egindako bileran. Gizarte Kontseiluak azpimarratu du Eskolak bere estrategia propioaren garapena, Unibertsitatearen ikerkuntza-estrategiari lotua, eta bere helburuen araberako kudeaketa-plana bermatu beharko dituela.

Gaur egun, UPV/EHUK 71 doktorego-programa ditu egiaztaturik. Horrez gain, Hezkuntza Ministerioak egin berri duen “Bikaintasuneranzko Aipamena” emateko deialdian, unibertsitate guztien arteko lehiaketa-prozeduraren bitartez antolatuan, UPV/EHUko 32 doktoregoko programak lortu zuten “Bikaintasuneranzko Aipamena”, eta UPV/EHU izan da Bikaintasuneranzko Aipamen gehien jaso dituen.

UPV/EHUK uste du aipatutako Eskola, gainera, baliagarria izango dela “Euskampus proiektuaren helburuak sendotzeko; helburu horietako bat Graduondoko eta Doktoregoko Nazioarteko Eskola bat sortzea da, hain zuzen ere. Nazioarteko Eskola horretan Donostia International Physics Center, Tecnalia Corporación Tecnológica, BERC (oinarrizko bikaintasun-zentroak) eta IKG (ikerketako kooperatiboko gunek) zentroetako adituek eta ikertzaileek parte hartuko lukete”.

Bestalde, Osoko Bilkurak onartu egin ditu UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren 2012. ekitaldiko aurrekontua eta 2011ko Likidazioa, irakasleei eta ikertzaileei ordainketa osagarri batzuk esleitzeko akordio batzuekin batera.

Azkenik, Osoko Bilkurak Ana Deusto eta Jose María Ormazabal Gizarte Kontseiluaren ordezkariak UPV/EHU Gobernu Kontseiluan izendatu zituen.

EAE-KO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PLANA: 9.000 MILIOI INBERTITUKO DIRA I+G ARLOAN DATOZEN LAU URTEETAN

Eusko Jaurlaritzak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2015era arteko Plana onartu du. Plan horren arabera, BPGdaren %3ko inbertsioa egingo da I+G arloan, eta helburu nagusia ekonomia-aren hazkundera, enplegua eta Euskadiren ongizatea suspertztea da. Hori dela eta, datozen lau urteetan, I+G arloan 9.000 euro inguru inbertitzea aurreikusi du plan berriak.

Orokorrean, Planak Eusko Jaurlaritzaren jarduerara 2015era arte zenbait arlotan antolatzen du, zehazki, euskal gizarteak lortutako ongizatearen eta bizi-kalitatearen mailak bermatzeko eta haietan aurrera egiteko funtsezkoak diren arloetan; horretarako, zientzia, teknologian eta berrikuntzan oinarritutako hazkunde-eredu bat sustatzea du xede. Hortaz, Plan horretan alor batzuk zehaztu eta hautatu dira (Zahartzea; Energia; Garraioak eta Mugikortasuna; Mundu digitala; eta Zientziaren Industria), euskal enpresek merkatu-aukerak sor ditzaten indar gehien dutenak direlakoan.

Helburuak eta ildo estrategikokoak

Honako hauek dira Planaren bederatzi helburu nagusiak, helburuok garatzeko ildo estrategikoekin eta tresnekin batera:

1. helburua: Ekoizpen-egitura berritzaileago batera joatea. Egitura horrek balio erantsi handiagoko produktuak eta zerbitzuak garatu eta merkaturatu ditu; eta produktuok eta zerbitzuok lehiakorrek izango dira iraunkorki beren merkatuetan. Bestalde, enpresa gehiagok egingo dute berrikuntza sistematikoki, bai industria-sektorean, bai gainerako sektoreetan, zerbitzuen sektorean barne.

Ildo estrategikokoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
1A IE. Merkatua, elkar-lana eta nazioartera irekitzea, berrikuntza eta teknologian gaitasuna lortzeko ardatzak	• Enpresako I+Gko esparru-programa	• Klusterretako berrikuntza-agendak • Nazioarteko jakintza-antena
1B IE. Enpresa berritzailean oinarritutako hedatzea, batik bat ETEetan eta zerbitzuetan	• Enpresa-berrikuntzako +Innova esparru-programa	• Hurbiltasun-zentroen sarea

2. helburua: Berrikuntza eta teknologian oinarrituta, merkatu globalan lehiatuko diren eta zenbait txokotan eta segmentutan aitzindari izango diren enpresak eta taldeak lortzea; eta, aldi berean, beste produkzio-sare batzuk garatzea, zientzia eta teknologian oinarritutako sektoreetan.

Ildo estrategikokoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
2A IE. Aitzindaritzak globala, Merkatuaren, Produktuaren eta Teknologia-aren garapen berri batzuen bitartez	• LIDERA ekimenak • Enpresa-garapeneko estrategiak, Zientzia eta Teknologian oinarrituta	• Ekimen estrategikotako unitatea • Lidera bulegoa • Dibertsifikazio estrategikoko agentziak
2B IE. Enpresa-aukera berriak, negozio-eredu aldaketaren, balio-katearen eta enpresa irekiaren inguruan	• energiasque • ecobasque	
2C IE. Aukeratutako produkzio-dibertsifikazioa, jakintza oinarrituta	• Enpresa eraldatzeko estrategia teknologikoa • biobasque • nanobasque	

*Hiru ildo estrategikokoak sustatzen dituzte.

3. helburua: Zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea, zientzia, teknologian eta berrikuntzan oinarrituta, eta tokiko merkatu sofistikatu bat eskaintzea, enpresa eta hornitzaile zientifiko-teknologikoei, eta berrikuntza-zerbitzuetakoei.

Ildo estrategikokoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
3A IE. Zerbitzu publiko eraginkor eta aurreratuak, zientzia, teknologian eta berrikuntzan intentsiboagoak	• Kronikasque estrategia	• I+G+Bko unitateak sektore publikoan • Demotek unitatea osasun-esparruan
3B IE. Zientzia, teknologia eta berrikuntza katalizatzen dituen erosketak publikoak	• Erosketa publikoko programa	• Erosketa publikoko politika laguntzeko unitatea
3C IE. Administrazio publikoaren bultzada, jarduerako esparru ekonomiko bat dinamizatzea	• Eraikuntza berderako berrikuntza-dinamika • REVIVE programa • Nekazaritzako elikagaien sektorerako eta natur ingurunerako berrikuntza-dinamika	• Eraikuntza berdearen alorreko erakustaldi-proiektuak • KATILU: Nekazaritza-elikagaien sektorearen, eta landa-nahiz itsasbater- ingurunearen zerbitzurako tresna

4. helburua: Gizartearen partaidetza sustatzea, euskal gizartearen eraldatzeko erronka global handiei aurre egiteko erantzun integral bat aurreikusteko eta bilatzeko, eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-aukerak ikertzea eta sortzea.

Ildo estrategikokoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
4A IE. Gizarte Berrikuntzarako eta erronka global handiei erantzuteko esparru aproposa	• Gizarte Berrikuntzako estrategia	• Gizarte Berrikuntza koordinatzeko unitatea • Gizarte berrikuntzako laborategiak • Erakundeak artikulatzeko ekimenak • Gizarte Berrikuntzako jakintza koordinatzeko eta bultzatzeko ekimenak
4B IE. Erkidego-harremanteko eta gizarte-agregazioko forma berriak		
4C IE. Gizarte Berrikuntzako Ikerkuntza Sustapen Neurriak	• Gizarte Berrikuntzako ikerketa-estrategia	

5. helburua: Zientzia eta Teknologia Sistema bat sendotzea, zeinak honako erronka hauek dituen: bere produktibitate zientifikoa eta teknologikoa handitzea; produktu, zerbitzu eta enpresa berrien formak balioa sortzen laguntzea; eragina edukitzea ehun sozioekonomikoan, eta protagonismoa, nazioartean.

(3. orrietan jarraitzen du)

Ildo estrategikoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
5A IE. Nazioarteko bikaintasuneko Zientzia Sistema Nazioarteko bikaintasuneko Campusa: Euskampus 2015	- Gaitasun zientifikoak garatzeko programa - Bikaintasun zientifikoko programa - Unibertsitateen programa-kontratuak - UPV/EHUren gaitasunak garatzeko programa - Azpiegiturak garatzeko programa - UPV/EHUko Parke Zientifikorako programa - Osasun-azpiegituretako programa - ESS programa - Compubasque programa	- Gaitasun zientifikoen behatoki iraunkorra - Laguntza eta jarraipena Euskampusi
5B IE. Sistema teknologiko lehiakorra eta balio bereizgarri ihurria enpresentzat	- Merkatura orientatutako gaitasun teknologikoak garatzeko Esparru Programa - Enpresa-garapenera orientatutako elkarlaneko ikerketa estrategikoko Esparru Programa	Jakintza salerosteko eta ustiatzeko unitatea
5C IE. Zientzia eta Teknologia Sistemaren nazioartekotzea	ZTBESren nazioartekotzea bultzatzen duten profesionalen sarea	
5D IE. ZTBESren optimazioa	- Esparru juridiko eta arauemaile berria - Azpiegituren koordinazioa eta kudeaketa	

6. helburua: Produktibitatea eta EAEn sortutako I+G+Bren presentzia hobetzeko beharrezko talentuaz hornitzea Euskadi.

Ildo estrategikoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
6A IE. Gure etorkizuneko talentua ziurtatzea Ikertzaileen prestakuntza	Talentua trebatzeko eta sortzeko estrategia 2020ko horizontean	
6B IE. Prestakuntzaren bidez, ZTBko sistemak behar dituen diziplina guztietan beharrezkoa den jakintza garatzea	- Bizitzan zeharreko prestakuntza - Graduondoko indartze-eta hobetze-programa - Nazioarteko Doktoretza Ikastetxeak - Doktoretza indus-trialak - Doktoretza ondoko prestakuntza - BAME prestakuntza ikerkuntzarekin koordinatzea	- Tituluen finkapena - Graduondoko eskaintza arrazionalizatzea - Osasun-profesionalak ikerkuntzara orientatzea
6C IE. Zientzialari, teknologo eta profesional gailen batzuk beren garapenerako ingurune on batera erakartzea eta bertan atxikitzea	- Zientzialariak, teknologoak eta profesionalak erakartzea - Zientzialariak eta teknologoak erakartzea - Business Talent Country - Nazioarteko mugikortasuneko programa	- Karrera profesionalaren erreferentzia-esparrua - Talentua kudeatzeko unitatea

7. helburua: Lurralde erakargarri bat artikulatzea, azpiegitura eta zerbitzu aurreratuagoak dituen, eta eragile oso aktibo eta elkarrekin lotuen sare bat daukana, berrikuntza euskal ETE guztietara hedatzeko.

Ildo estrategikoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
7A IE. Innovanet sarea indartzea	Innovanet sarea	Berrikuntzako lurralde-zirkuluak
7B IE. Adimena hornitzea azpiegiturari	Smartlur plataforma	

8. helburua: Zientzian, teknologian eta berrikuntzan ditugun gaitasunen aitorpen bat erdiestea gure Herrian eta kanpoan, horrek zientziarako eta teknologiarako interesa pitz dezan herritarren artean, oinarritzko kontzeptu eta garapen zientifiko-teknologikoak ulertzen lagun dezan, gizartearen aitorpen handiago bat ekar dezan, eta bokazio zientifiko-teknologiko gehiago sor ditzan.

Ildo estrategikoak	Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
8A IE. Gizartearen kultura eta garapen zientifiko-teknologikoa orientatzea	ZTB hedatzeko programa	- Komunikazio- eta hedapen-sarea - Erabiltzaile aurreratuaren elkarteak
8B IE. Euskadiri koka-pen bereizgarri bat emateko estrategia bat garatzea, marka baten bitartez	Multinazionalen gaitasun-zentroak erakartzeko programa	

9. helburua: Berrikuntzaren finantzaketa-eredu berri bat taxutzea, zeinak balio-ekarpena lehenetsiko duen, ekimen pribatuaren partaidetza handiago bat ekarriko maila guztietan, eta arrisku partekatuko tresna berri batzuk izango bere baitan, Administrazioak, gero, egindako inbertsioak kapitaliza ditzan.

Programa eta/edo estrategia espezifikoak	Laguntza-tresnak
- Berrikuntzako Funts Estrategikoa - Ikerketa mota guztietarako erreferentziako finantzaketa-eredua	

Horretarako, ZTB2015ek konpromisoa hartu du **2015ean I+Gn BPGdaren %3ko gastura iristeko** beharrezko baliabideak mugiarazteko, **eta horrek 2011-2015 aldian 8.946 milioi euro arlo horretan ezartzea dakar. Horrez gain, I+Gren finantzazioan protagonismo handiago eman nahi zaie enpresei, enpresek guztizko gastuaren %62 bere gain har dezaten, eta finantzazio publikoak gainontzeko %38.**


Lehendakaritzak egin du plana, eta honako sail hauek parte hartu dute: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak; Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak; Osasun eta Kontsumo Sailak; Ogasun eta Ekonomia Sailak; bai eta hiru foru-aldundiek ere.

KRISIA EGON ARREN, ENPLEGU KUALIFIKATUA IGO EGIN DA EAE-N

Ekonomia-krisiak suspertu egin du kualifikazioek lan-merkatuan duten eraginari buruzko eztabaida zaharra. IVIE-k, Ekonomia Ikerketen Valentziako Institutuak, argitaratu duen azkeneko lan-koadernoak agerian utzi du krisiak ez duela biztanle aktibo guztiengan eragin bera izan. Izan ere, lanpostu kualifikatuen eskaera (LES 1-3: Zuzendariak eta kudeatzaileak; Zientzia- eta adimen-arloe-tako teknikariak eta profesionalak; Teknikariak, laguntza emateko profesionalak) ez da jaitsi, baizik eta mantendu egin da; eta gainera, lanpostu kualifikatuek hainbestearino bultzatu dute guztizko enplegua, non autonomia erkidego batzuetan enplegua sortu baitute.

2007. eta 2010. urte bitartean, EAEn goi-mailako ikasketak eskatzen dituzten lanpostuen kopurua %0,2 igo zen. Pape-rean idatzita, ez dirudi asko denik, baina datuaren garrantzia ulertzeko, kontuan hartu behar dugu urte horietan kualifikazio ertaineko edo kualifikaziorik gabeko lanpostuek %4,7 eta %0,7 egin zutela behera, hurrenez hurren.

Lanbide-motek enpleguaren hazkundeari egin dioten ekarpena, 2007an eta 2010ean (%)




Iturria: EIN.

Datu hori garrantzitsua bada ere, are garrantzitsuagoa da honako gertaera hau: goi-kualifikazioko lanpostuetan langile gehien dituzten bost autonomia erkidegoetan segmen-tu horren kopuruak gora egiten jarraitu du, lan-merkatuak orokorrean behera egin duen arren. Horiek horrela, 2007-2010 aldian, goi-kualifikazioko lanbideen ehunekoa %42,3 izatetik %46,2 izatera pasatu zen Madrilgo Erkidegoan, eta EAEn %39,6 izatetik %42 izatera. Beste hiru erkidegotan ere (Kantabria, Asturias eta Nafarroa) Espainiako batez bestekoa (%35) gainditu da.

Gain-kualifikazioa jaitsi da unibertsitarioen artean

IVIERen lanetik beste datu on bat ondoriozta daiteke: goi-mailako ikasketak dituzten biztanle gehiagok lortu dituzte


Langileen kopurua goi-kualifikazioko lanbideetan. 2007an eta 2010ean. (%)



Iturria: EIN.

goi-kualifikazioko lanpostuak, hau da, kualifikazio ertaineko edo txikiko lanpostuetan jardun beharrean, lanpostuak eta haien kualifikazioa gehiago parekatu dira. Horren ondorioz, “gain-kualifikazioa” edo lanpostuari dagokiona baino kualifikazio handiagoa duten langileen kopurua jaitsi da, zehazki, 2007an %34,9 zen, eta 2010ean %32,5. Datu hori oso garrantzitsua da, herrialde honetan gain-kualifikazioaren kopurua oso handia baita. Gainera, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonei soilik erreparatzen badiegu, ehunekoa hamar puntuan jaitsi da (2007an %21,8 izatetik 2010ean %19,9 izatera pasatu da). Eragina askoz nabaria-goa da EAEn: 2010ean, gain-kualifikazioa duten langileen kopurua %16,9 izatera iritsi zen.

Goi-mailako langileek gain-kualifikazioko lanpostuetan, 2007an eta 2010ean (%)



Iturria: EIN.